

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Epea ireki da Gazteriako Parte-hartze bidezko 2019 Aurrekontuetarako proposamenak aurkezteko

Nafarroako gazteek hiru proiektu hautatuko dituzte bozketa bidez; proiektuek 30.000 euroko finantzaketa jasoko dute NKGIren eskutik

Ostirala, 2019.eko otsailak 22

Gaurtik martxoaren 22ra bitarte aurkez daitezke Gazteriako Parte-hartze bidezko 2019 Aurrekontuetan parte hartzeko proposamenak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak (NKGI) sustatuta.

Kultura, Kirola eta Gazteria Departamentuak hirugarren urtez jarraian onartu du deialdia 30.000 euroko finantzaketarekin, hiru proiektu gauzatzeko. Proiektuak bozketa bidez hautatuko dituzte Nafarroako gazteek, eta NKGIk kudeatuko ditu proposatu dituzten pertsonekin batera.



Parte hartzeko Aurrekontuen aurreko edizioko "Sadar conecta" proiektua.

Modu horretan, Parte hartzeko Aurrekontuak gazteak proiektuaren garapen-maila guztietan inplikatzeko aukera ematen duen erreminta bilakatu dira, definiziotik hasi eta ebaluaziora bitarte. Aurrekontu horien oinarritzko printzipioak Nafarroako Gobernuaren II. Gazteria Planean oinarritzen dira, eta prozesu plurala, askotarikoa, eskuragarria eta berdintasuneko eratu nahi dute, modu argian eta gardenean hedatua; bertan, Nafarroako gazteen iritzia kontuan hartu dira.

Proposamenak

Proposamenak aurkeztu ditzakete Nafarroan erroldatutako 14 eta 30 urte arteko gazteek nahiz gazteekin lan egiten duten eta Foru Komunitatean erregistratuta dauden irabazi asmorik gabeko elkarteek edo erakundeek.

Aurkezten diren ekimenak berriak izango dira eta gazteen segmentu osora irekiak, segmentu horretan eragina izan behar dute epe ertain eta luzera, eta honako arlo hauetako proiektuek osatuko dituzte: parte-hartzea, prestakuntza, kultura, berdintasuna, gizarteratzea, gazteriari buruzko azterketak, e.a. Gainera, izaera soziala eduki behar dute, eta gazteentzat izango dira.

Ez dira onartuko inbertsio-proposamenak (obrak) edota ondasunak eskuratzekoak.

Hiru proiektutako bakoitzaren gauzatze-aurrekontua ezingo da 9.500 eurotik gorakoa (BEZ barne) edo 6.000 eurotik beherakoa (BEZ barne) izan. Horrez gain, proiektuaren proposamena egiten duten pertsonak edo erakundeek konpromisoa hartu beharko dute kudeaketan parte hartzeko, proiektuaren segimendu eta ebaluazio batzordean parte hartuaz. Horren jarduerak NKGIk garatu eta gauzatuko ditu.

Proposamenak 2019ko abendua amaitu baino lehen burutuko dira.

Aurkezteko epea eta modua

Proposamenak NKGIren web orrialdearen bitartez aurkeztuko dira (www.deporteyjuventudnavarra.es), Aurkeztu zure proposamena atalean, Parte hartzeko Aurrekontuak sekzioaren barnean. Proiektuak aurkezteko epea martxoaren 22ko 23:59an amaituko da.

Epea itxi ondoren, ebaluazio-batzordeak aurkeztutako ekintzak aztertuko ditu, eta gazteen bozketaren esku utziko ditu oinarrietan adierazitako baldintzak betetzen dituztenak.

Proposamenen bozketa on-line egingo da NKGIren web orrialdean, eta bi asteko epean irekita egongo da. Bozketan parte hartzen duten gazteek hautatutako proiektuetariko bat hautatu ahal izango dute soilik. Bozketaren emaitza NKGIren web orrialdearen bidez jakinaraziko da, eta pertsonalki horren berri emango zaie proposamen irabazleak aurkeztu dituztenei.

Informazio xehatu guztia eta Parte hartzeko Aurrekontuen proiektuaren oinarriak ondorengo [estekan](#) kontsulta daitezke.

2018an bozketa bidez hautatutako proiektuak

Parte hartzeko Aurrekontuen 2018ko [deialdian](#), sei proposamen aurkeztu ziren, eta horietatik hiru bozketa bidez hautatu ziren. Hona hemen gauzatutakoak:

- Nafarroako gazteriaren autoenplegua sustatzeko azterketa, biztanleria gazteak autoenplegua nola ikusten duen ezagutzeko, eta erremintak eta etorkizuneko hobekuntza-jarduerak, Nafarroako gazteen artean autoenplegua sustatzeko Ibilbide-orria egiteko helburuarekin.

- “Sadar Conecta, sormen-topaketak Sadar ibaia ezagutzeko eta hobetzeko”. Proiektuaren helburua izan da natura eta hiriko ibaia biztanleriarengana hurbiltzea, sentsibilizatu eta ingurumenarekiko errespetua defendatze aldera.

- Infoday NavarrEsports, hedapen-jardunaldia eSports-ak zer diren ezagutzera emateko; modu horretan, hitzaldiak egin ziren lanbide eta prestakuntza irteeren inguruan, bideojokoen inguruko mitoen eta esperientzien gainean eta emakumeak arlo horretan duen presentziaren inguruan. Jardunaldia osatzeko, txapelketak egin ziren.

Burututako hiru proiektutan, 400 pertsona baino gehiagok hartu zuten parte.

Informazio guztia [hemen](#).



2018ko Aurrekontu parte-hartzaileen Infoday NavarrEsports proiektua